



Egun hauetan Basque Fest jaialdia ospatu da Bilbon. Jardunaldietan zehar euskal kulturari lotutako ekimen ezberdin egin dira: herri-kirolak, kontzertuak, dantza emanaldiak... Bilboko Ernaik salatu du jaialdia bakarrik zuzentzen dela turistentzat eta PNV zein PSEek Euskal Herriaren inguruan folklore hutsaren irudia saldu nahi dutela, estereotipoak babestuz: txistua, pintxo... Euskal kulturari tarte txiki hau ematen dioten bitartean urtean zehar multinazionalen ekimenei atea zabaltzen diete, MTV jaialdiarekin gertatu den bezala... gaineratu du. Horretaz gain eredu hau herritarren beharrak ahazten dituela eta besteak beste gazteriaren prekarietatean oinarritzen dela aipatu du gazte antolakundeak. Bilboko Ernaik argi utzi du, Euskal Herria saldu nahi duten irudi hori baino askoz gehiago dela; espainiar estatua eta kapitalaren inposaketan eta esplotazioaren aurka borrokatzen duen herria dela.

EUSKAL HERRIA

TURISTENTZAKO "TXISTU ETA PINTXO" BAINO

HERRI BORROKALARIA

"Aste Santua" delako egunetan, Bilboko PNV-PSEren Udalak BASQUE FEST izenean turistentzako astebeteko agenda beteko du. Urtean zehar multinazionalen ekimenei atak parez pare ireki ostean, euskal kulturaren erakusleihu bat ireki nahi du, "pintxo eta txistuaren" estereotipoen babesean.

PNVko ustelek Euskal Herriaren inguruan saldu nahi duten irudia folklore hutsarena da: txistua, pintxoak, aurreku bat agurrean... ostean FIFA 2020ren baitan Espainiar Selektzioaren partidua San Mamesen jartzeko.

Euskal Herria urtean folklore festibal bat bezala saldu nahi dute, urtean zehar hiria MTV bezalako multinazionaleri lasai asko oparitzeko. Ustelek turistei folklore hutsean oinarritutako herri baten irudia saldu nahi diete, aldi berean Aste Santuan dendak ireki eta langileak lan egitera behartzen dituzten bitartean.

Baina gazteok argi daukagu Euskal Herria hori baino askoz gehiago dela. Borrokatzen dugun herria garena. Espainiar estatuaren eta kapitalaren inposaketa eta esplotazioaren aurrean antolatzen den herria gara. Lan esplotazioaren aurrean kalera irteten dena. Greba Feministan kaleak bete zituena. Hezkuntza inposaketei eta errebalidei planto egingo diena. Gazteon gune autogestionatuak sortu eta defendatzen dituena.

Turistentzako eskaparate hiria sortzen duten bitartean, gazteontzat hilik dagoen hiria sortu nahi dute. Baina aurrean edukiko gaituzte!

Gazteok Bilbo Bizia!

